# euskaltel

2014ko urteko txostena

Gure xedea hau da: “Pertsonen komunikazio-behar guztiei erantzutea eta enpresei ahalik eta produktibitate handiena izaten laguntzea, eta, horretarako, komunikatzeko eta informazioa kudeatzeko tresnak eskaintzea. Horrekin, gure komunitatearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatu nahi da”.

2014ko mugarriak ..... 4
Presidentearen eta zuzendari nagusiaren gutunak ..... 6
2014ko ekitaldia ..... 10
Produktuak eta Zerbitzuak ..... 18
Enpresaren Gobernua ..... 32
Gure gizon-emakumeak ..... 40
Gure konpromiso soziala ..... 46
Gure ingurumen-erantzukizuna ..... 58

# 2014KO MUGARRIAK

**EBITDA** 155,9 MILIOI EURO

**EMAITZA** 44,3 MILIOI EURO

DIRU-SARRERA OPERATIBOAK
315,1 MILIOI EURO
SEKTOREKO BATEZBESTEKOA BAINO BILAKAERA HOBEA

ZORRAREN MURRIZKETA
89 MILIOI EURO
ZORRAREN RATIOA: EBITDA 1,5 ALDIZ

CASH-FLOW LIBRE POSITIBOA
89,05 MILIOI EURO
AURREKO EKITALDIKOA BAINO % 3,4 HANDIAGOA

29,5%ko
IGOERA TELEFONO MUGIKORREKO KONTRATAZIOAN

EGUNEAN
1,2
MILIOI ZERBITZU EMATEN DIZKIEGU
400.000 EUSKAL BEZERORI

ENPRESA-ALORREAN,
LIDERRA EUROPAKO KABLE BIDEZKO OPERADOREEN ARTEAN

ESTATUKO
1.
OPERADORE ALTERNATIBOA

## DIRU-SARRERAK, ERAGIKETAREN ARABERA

(mila eurotan)

315.109 €




### TELEFONIA MUGIKORREKO LINEAK

### BANDA ZABAL BIDEZKO INTERNETEKO LINEAK

### ORDAINPEKO TBKO PRODUKTUAK

### TELEFONIA FINKOKO LINEAK

# PRESIDENTEAREN GUTUNA

## Alberto García Erauzkin

2014ko ekitaldian, sendotu egin da Euskaltelen bilakaera positiboa, bai negozio-alorretan, bai emaitzetan. Gure estrategia sendoak errentagarritasunaren hobekuntza eta kutxako fluxuaren sorrera-maila bikainak ekarri ditu, Europan gure homologo diren kable bidezko operadoreenak baina hobeak. Bestalde, malgutasuna ere eman digu estrategia horrek eta, horri esker, errendimendu erakargarriak izango dituzte gure akziodunek, eta konpainiarentzat balioa sortzen duten erosketa estrategikoak egin ditzakegu.

Horrez gain, antolakuntza aldatu egin dugu 2014an, sendotu egin dugu merkatuko gure posizioa, eta hazi egin gara.

Gogor egin dugu lan gure konpainiaren antolakuntza egokitzen, merkatuaren oraingo eta etorkizuneko eskakizunei egokiro aurre egiteko. Sektorearen sendotzeak, berriz, indartu egin ditu nazioarteko zenbait enpresarekin eta teknologia-erreferentziarekin ditugun aliantza estrategikoak.

Merkatuan dugun posizioa tinkatzeko, berriz, inbertitu egin dugu, hazi egin gara, eta lehiakorrago bihurtu, euskal gizartearekiko konpromisoari eutsiz betiere, bai eta lehiakideetatik bereizten gaituzten ezaugarriei ere (hurbiltasuna, zerbitzua eta ekimena). Liderrak gara, eta hazten jarraitzeko, merkatu-eremu zabalagoak irabazteko behar den guztia daukagu: jendea, talentua, teknologia, akziodunen babesa, eta Euskaltelen, gure markaren balioen indarra.

Hazkunde bideak jorratzeko (hori baita ekitaldi honetako gure hirugarren desafio nagusia), gure produktu eta zerbitzu bateratuen balioa handitzen ahalegindu gara, bai egungo gure bezeroentzat, bai erakarri nahi ditugun erabiltzaileentzat.

Gobernu korporatiboari dagokionez, berriz, sendotu egin ditugu gure jarduerak, eta bultzatu ditugun aldaketei esker, konpainia gardena da Euskaltel, eta nazioarteko merkatuek onartzen dituzten gobernantza egokirako gomendioak bereganatzen eta bultzatzen ditu; horrez gain, kudeaketa korporatiboko ideia aurreratuak aplikatzen ditu alor horretan, indarrean den legediak eskatzen duenaz harago joz.

Ziur naiz denok ohartuko zaretela honetaz: eman ditugun pausoak dira hazkundearen eta etorkizun oparo baten oinarria, bai Euskaltelentzat, bai gure bezeroentzat. Konpainia sendoa, egonkorra eta ahaltsua da Euskaltel; hazi egin nahi (bere merkatu naturalean eta handik

kanpo) eta prestatuta dago bere helburu nagusira iristeko behar diren bide guztiak jorratzeko: balioa sortzea akziodunentzat, gure gizon-emakumeekiko konpromiso saihestezinari eutsiz betiere, gure herrian aberastasuna eta ongizatea sortuz, eta garapena bultzatuz.

**Alberto García Erauzkin**
Euskalteleko Presidentea

"Gure estrategia sendoari esker, hobetu egin da errentagarritasuna; hori dela-eta, gure akziodunei etekin erakargarriak emateko moduan gara, eta konpainiari balioa ekarriko dioten erosketa estrategikoak egin ditzakegu".

# ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA

## Fernando Ojeda

2014 ekitaldiak sendotu egin du Euskaltel Euskal Autonomia Erkidegoko telekomunikazioen sektorean lider gisa eta telekomunikazioetako zerbitzu guztiak batera eskaintzen dituen erreferentziazko operadore gisa; eta horrek guztiak areagotu egin du enpresak merkatuan duen balioa.

Sektore honetako negozioetan % 7ko jaitsiera izan da, baina Euskaltelek arrakastaz gainditu ditu ekitaldi honetarako funtsezko helburuak: 2014ko amaieran, aurreko ekitaldian baino % 0,4ko Ebitda altuagoa genuen, 155,9 milioi eurorekin. 44,3 milioi euroko irabaziak lortu ditugu; gure zorra 89 milioi euroan murriztu dugu, eta gure historiako zor-maila baxuena dugu orain; eta ratioa, berriz, Ebitda 1,53 aldiz, sektoreko baxuenetako bat.

Beraz, datu horiek Euskalteleko lan-taldeak 2014an lana ondo egin duen seinale dira, Euskaltelek balioa irabazten segi dezan ezarritako helburu estrategikoak bete baititugu. Hori lortzeko, 2014an, aurtengo diseinatutako ekintza-planak jarri ziren martxan; produktu eta zerbitzu berriak merkaturatu ziren, eta, gainera, teknologia berritzen joan da eta lehendik genituen teknologietan hobekuntzak aplikatu dira, negozio-jarduera guztietan: Telefonia finkoa, Telefonia mugikorra, Banda Zabala eta Ordainketa bidezko TBa.

Azken belaunaldiko zuntz optikoko sarearen gaitasunari esker, gure erkidegoa Europako aurreratuenetako bat da; gure bezeroei banda zabaleko abiadura igo diegu, eta EAEko 800.000 etxetara 250 Mb/s eskaintzen ari gara. Horrez gain, 2014an EAEko WiFi-sare handiena hedatzen hasi ginen, merkatuan "Euskaltel WiFi" izena duena. Gure sarearen gaitasun handian oinarrituta dagoen eskaintza horrek garbi bereizten gaitu gure lehiakideengandik.

Bestalde, ahalegin berezia egin dugu telefonia finkoko bezeroei mugikorreko zerbitzuak eskaintzeko. Horri esker, bezeroen % 20k baino gehiagok kontratatzen ditu aldi berean Euskaltelen lau produktuak, eta % 29,5 hazi da kontratatutako linea mugikorren kopurua. Produktu ugari aldi berean eskaintzean, eremu horretan bikoiztu egiten du bezero kopurua urtero Euskaltelek, eta etorkizunean Euskaltel hazteko funtsezko oinarrietako bat izango da eskaintza-mota hori.

TBan, telebista-zerbitzuen borrokan aurrea hartu dugu "Edonon" zerbitzua (kalitatezko telebista ikusteko aukera edozein tokitan eta edozein gailutan) eta eskaeraren araberako bideo-eskaintza merkaturatuta; proiektu horiek, TBko pakete-egitura berriarekin batera, ordainpeko telebistaren bezero-kopurua eta telebistatik datozen

diru-sarrerak igotzeko balio izan digute.

Bestalde, aurreko ekitaldian iragarri genuen bezala, Euskaltelek bi itun teknologiko garrantzitsu lotu zituen 2014an, telekomunikazioen sektorean nazioartean erreferentzia diren bi konpainiarekin: GFI multinazional frantziarra, Zerbitzu Informatikoen alorrean, eta ZTE multinazional txinatarra, Sare Irtenbideetan munduan erreferentea dena. Aliantza horiek, batetik, munduko garapen berrietara modu lehiakorrean sartzeko aukera bermatzen diote Euskalteli, eta, bestetik, gure bezeroei zerbitzu berritzaileak eta kalitate gorenekoak emateko helburua sendotzen dute.

Azkenik, Euskaltel markak merkatuan duen balioa nabarmendu nahi nuke. Operadore liderra gara, EAEko erreferentziazko marka, markarik baloratuena; inork baino hobeto ezagutzen dugu gure merkatua, Euskalteleko balioen indarra erabilita lan egiten dugu, eta helburu komun bati begira jarduten dugu: hazi, inbertitu, indartu eta gure gizartearekiko eta gure bezeroekiko konpromisoei eutsi. Espiritu horren baitan dago gure markaren indarra.

**Fernando Ojeda**
Euskalteleko Zuzendari nagusia



"Operadore liderra gara, EAEko erreferentziazko marka, markarik baloratuena, eta helburu komun bati begira jarduten dugu: hazi, inbertitu, indartu eta gure gizartearekiko eta gure bezeroekiko konpromisoei eutsi."

# 2014KO EKITALDIA

33
35
Link
37
Mode
39



# Datu ekonomikoak

| | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|
| (mila eurotan) | | | |
| Diru-sarrerak guztira | 342.800 | 334.891 | 321.161 |
| Eragiketa bidezko diru-sarrerak | 338.542 | 329.148 | 315.109 |
| Finantza-zor garbia | 412.090 | 325.962 | 236.910 |
| Cash-flow operatiboa | (151.710)* | 86.128 | 89.052 |
| Ebitda | 134.700 | 155.132 | 155.850 |
| Kudeaketa-emaitza | 48.104 | 50.092 | 49.973 |
| Ordaindutako zergen bolumena, guztira | 104.521 | 81.832 | 79.707 |

** 2012ko ekitaldiko cash-flow negatiboak barnean hartzen du EAEANren autoaren ondoriozko ordainketaren eragina.*



# Negozio-datuak

| | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|
| Telefonia mugikorreko lineak | 344.079 | 374.592 | 422.546 |
| Sare propioko telefonia finkoko lineak | 384.863 | 385.608 | 381.279 |
| Interneteko Banda Zabaleko lineak | 249.765 | 259.987 | 264.716 |
| Ordainpeko TBa | 50.177 | 56.992 | 124.754 |



## Euskaltelen negozioaren bilakaera 2014ko ekitaldian

2014aren amaieran, Euskaltelek 376.258 bezero zituen. Horietatik, 323.209 etxeko segmentukoak, eta 53.049 enpresak.

Etxeko segmentuan, lehendik bezero direnen produktuak eta zerbitzuak gehitzeko estrategiarekin segitu dugu. Horrek % 11,7ko igoera ekarri du telekomunikazio finkoen negozioan merkaturatutako produktuetan. Horretan asko lagundu du ordainpeko telebistako bezeroak igotzeko politikak.

Telefonia mugikorreko negozioan, kontratatutako linea-kopurua % 29,5 igo da, 2013arekin alderatuta. Ondorioz, bezeroen % 20,3k lau produktuak (telefonia finkoa, banda zabala, ordainpeko telebista eta telefonia mugikorra) kontratatuta ditu aldi berean; duela urtebete, % 9,4 ziren lau produktuak kontratatuta zituztenak. Produktu eta zerbitzuak paketetan sartzeko estrategia honek lagundu digu ARPU globala pixkatxo bat hobetzen, etxeko negozioan, iazko datuekin alderatuta.
Horregatik guztiagatik, Euskaltelek merkatuko kuotako liderra izaten segitzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko telekomunikazio finkoko bezeroetan, eta bere merkatu naturaleko hirugarren operadore mugikorra izatera pasatu da.

Euskaltelek 376.258 bezero zituen. Horietatik, 323.209 etxeko segmentukoak, eta 53.049 enpresak, eta 1,25 milioi zerbitzu ematen dizkie haiei egunero.

Beste operadore batzuekiko alderdi bereizgarri gisa, enpresa-segmentuan ere ezarpen-maila handia du Euskaltelek. Kudeaketako diru-sarrera guztien % 30 inguru dira segmentu horretako diru-sarrerak. Lan egiten dugun lurraldearekiko dugun konpromisoaren ondorioa da hori, lotura handia sortu baitugu gure industria eta enpresekin. 2008an hasi ginen munduan krisi ekonomikoaren eragina nabaritzen; EAEn, negozio- eta enpresa-kopurua % 9,9 jaitsi da (6.426 enpresa gutxiago, Confebask, Euskal Enpresarien Konfederazioaren arabera), eta horrek zuzenean eragiten dio bezeroak erakartzeko aukerari. Baina, egoera hori izanda ere, Euskaltelen joera sektorekoa baino askoz hobea izan da azken bi urte



hauetan, eta Euskalteleko enpresen segmentuko diru-sarreren merkatu-kuota, Espainiako sektoreko guztizkoarekin alderatuta, % 27 igo dira (guztizkoaren % 1,9ra iritsi gara).

Negozioetan irtenbideak arrakastaz merkaturatzeko eta operatzeko beharrezko garatzaileekin batera, 2014an hainbat erronka garrantzitsu eduki ditu enpresak, datozen ekitaldietan Euskaltelen jarduerari zentzua emango diotenak eta haren euskarri izango direnak:

- Host-aren migrazioa: telefonia mugikorreko bezero guztiak seinalearen hornitzaile berri batera migratu ditugu, gure bezeroei ematen diegun zerbitzuari eragin gabe. Eragiketa konplexua izan da, eta modu eredugarrian egin da.
- Leku publikoetan WiFi sarbidea jartzeak eta leku urrunetara iristeko banda zabaleko zerbitzua satelite bidez emateak autonomia-maila handiagoa ematen digute, eta gastu operatiboak murrizten laguntzen.
- Aliantza estrategikoak: garrantzi handiko hitzarmenak lortu dira, informazio-sistemen eremuko (GFI multinazional frantziarra) eta sareak kudeatzeko eta haien mantentze-lanak egiteko (ZTE multinazional txinatarra) bazkide estrategikoekin. Hitzarmen horien bidez, jakintza partekatu dugu, eta, bi



esternalizazioren bidez, enpresa horietara aldatu dira alor horietako Euskalteleko langileak. Neurri horrek erakusten du enpresa horiekin dugun lankidetza estua. Horrek, gainera, aukera ematen digu garapen eta teknologia berriak erabiltzeko, eta sendotu egiten gaitu gure bezeroei zerbitzu berritzaileak eta kalitate gorenekoak emateko helburuan.

## Jarduera ekonomikoa

Sektoreko diru-sarrerak gutxitu izanak zuzenean eragin digu, eta gure diru-sarrerak 315.109 mila euro izan dira 2014an, aurreko urtean baino % 4,25 gutxiago; estatuan, ordea, % 7koa izan da jaitsiera. Alor honetan, oso desberdina izan da bi negozio-alorretako bilakaera. Etxeko negozioan, azken ekitaldietan diru-sarreretan izandako etengabeko jaitsierari buelta ematea lortu dugu, eta 2013arekin alderatuta, % 0,4 hazi gara; enpresen negozioan, berriz, % 7,7ko jaitsiera izan dugu, jarduera komertzialen atalean aipatutako arrazoiak direla eta.

Adierazle makroekonomikoak eta telekomunikazioen merkatuko aurreikuspenak ikusita, uste dugu baditugula optimista izateko arrazoiak 2015etik aurrera arrazoiak, eta nabarmenago 2016tik aurrera, diru-sarreretan izandako joera negatiboei buelta emateko.

Negozio-zifrak gutxitu egin diren arren, 2013an eraginkortasun operatiboa hobetzeko ekintzak abiarazteak, gure prezioei eusteak, merkaturatze-kanalak berdefinitzeak eta barruko berrantolakutzak gure historian inoiz izan dugun emaitza operatibo onena lortzeko balio izan digute, % 49,45eko marjina operatiboa lortu baitugu; hain zuzen ere, gure sektorean Europan errentagarritasun-lider direnek lortzen dituzten mailak.

Horri esker, kutxako fluxu garbia 89.052 mila eurokoa izatea lortu da, 2013koa baino % 3,4 hobea, kontuan hartuz inbertsio aktibatuak urtean 42,2 milioi eurokoak izan direla (kudeaketako diru-sarreren % 13,4).

Ekitaldiaren emaitza garbia 49.973 mila euro izan da, aurreko ekitaldiaren antzekoa. Urtea itxita, 236,9 milioi eurokoa da finantza-zor garbia, baxuena 1999tik, eta etorkizunari konfiantzaz begiratzeko aukera ematen digu horrek.



Gure prezioei eusteak, merkaturatze-kanalak berdefinitzeak eta barruko berrantolakutzak gure historian inoiz izan dugun emaitza operatibo onena lortzeko balio izan digute, % 49,45ko marjina operatiboa lortu baitugu; hain zuzen ere, gure sektorean Europan errentagarritasun-lider direnek lortzen dituzten mailak.

GFI eta ZTE multinazionalekin lortutako hitzarmen estrategikoek aukera ematen diote Euskalteli garapen eta teknologia berrietara iristeko. Hartara, bezeroei zerbitzu berritzaileak eta kalitate gorenekoak emateko Euskaltelen helburua sendotzen dute.

# PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK

WiFI
en la calle
GRATIS
euskaltelwifi.com
euskaltel

## Gure eskaintza

Zuntz Optikoko bere sareak ematen dion abantaila teknologikoa eta operadore mugikor birtual oso gisa duen ahalmena kontuan hartuta, Euskaltelek produktu-katalogoa hobetzen jarraitu du 2014an zehar.

Alderdi teknologikoari dagokionez, eskaintza askoz hobea egin du, eta 2014an ahalegin berezia egin du bezeroei teknologia horiek erabiltzeko aukera ematen. Horretarako, produktu soilagoak eta pertsonalizatzeko errazagoak diseinatu ditugu, bezero guztiek beren aukera erraz aurkitu eta beren etxeko beharretara egokitu dezaten.

Bilakaera teknologikoaz gainera eta telekomunikazio-zerbitzuen hobekuntzaz gainera, 2014an Euskaltel saiatu da telekomunikazioak gizatiartzen eta bezeroei, teknologien bidez, beren bizitza hobetzeko erabilera eta modu berriak erakusten.

Horrenbestez, Nike, GoPro, Amazon, Sony eta PlayStation-ekin elkarlanean, sustapen bereziak merkaturatu ditu bezeroentzat esklusiban, mugikorretarako, SmartWatch-etarako, SportWatch-etarako, ekintza-kameretarako edo azken belaunaldiko kontsoletarako.

Nike, GoPro, Amazon eta Sonyrekin lankidetzan egindako kanpaina bat, mugikorrerako aplikazioen, SmartWatchen, eta beste zenbaiten sustapenen berri emateko.

### Internet

Sareari eta Zuntz Optikoan duen esperientziari esker, espainiar estatuaren merkatuko sarbide-modalitate bizkorrena merkaturatu du Euskaltelek: 250 mega.

Bezeroekiko konpromisoari erantzunez, 2014ko ekitaldian handitu egin du Interneteko konexioen abiadura;

Sareari eta Zuntz Optikoan duen esperientziari esker, espainiar estatuaren merkatuko sarbide-modalitate bizkorrena merkaturatu du Euskaltelek: 250 mega.

## Bere horretan utziko dizugu INTERNETen PREZIOA

Ez kezkatu Interneteko sustapena amaitu delako. **BERE HORRETAN UTZIKO DIZUGU ZURE INTERNETEN PREZIOA.** Orain bezalaxe nabiga dezazun eta orain ordaintzen duzuna ordainduta.

## EUSKALTEL WIFI, WiFi-a doan zuretzat

Laster, **100.000 WiFi PUNTU izango dituzu, DOAN, EUSKADI OSOAN.** Euskaltel WiFiri esker, nahi adina giga izango dituzu, Euskadiko WiFi sarerik handienaren bidez.

Zerbitzu berri eta **esklusiboa** zu bezalako bezeroentzat.

## DEITU DOAN asteburuetan mugikorretara

Orain, **DOAN DEITU DEZAKEZU ZURE FINKOTIK MUGIKOR GUZTIETARA** asteburuetan. Zuk ezer egin beharrik gabe, gure bezero izate hutsagatik. Deitu nahi adina!

## INTERNETeko abiadura hobetuko dizugu

**ABIADURA** hobetuko dizugu, **ARE AZKARRAGO IBIL ZAITEZEN** Interneten, **Euskaltelen Zuntz Optikoaren** kalitatearekin, merkatuko onenarekin.

Bezeroekiko konpromisoari erantzunez, 2014ko ekitaldian handitu egin du Interneteko konexioen abiadura; ondorioz, Euskaltelen bezeroen % 80k baino gehiagok 30 mega baino gehiagoko abiadura du, alegia, ADSLaren abiadura baino hiru aldiz bizkorragoa.



ondorioz, Euskaltelen bezeroen % 80k baino gehiagok 30 mega baino gehiagoko abiadura du, alegia, ADSLaren abiadura baino hiru aldiz bizkorragoa. Gainera, bezeroen % 40 inguruk, 120 mega baino gehiago ditu; beraz, Euskadi espainiar estatuko erkidegorik bizkorrena da, eta Europako abiadura handieneko bat.

Bezeroen mugikortasunari erantzuten dio Edononek, eta aukera ematen du telebistako zerbitzua ahalik eta gehien baliatzeko.

Kalitatezko Interneteko sarbidea guztiongana iristeko konpromisoari eutsiz, Euskaltel SAT merkaturatu dugu: Internetera konektatzeko teknologia berri bat da, 25 megara arteko abiadurara iristeko aukera ematen duena. Aukera honen bidez, nekazaritzako guneetan ere abiadura handiko Interneterako sarbidea dute, baita beste operadore batzuk iristen ez diren tokietan ere.

Telefonia Mugikorra

2014an telefonia mugikorreko eskaintza garatzen segitu du Euskaltelek, tarifen eskaintzara dei mugagabeen aukera gehitu du eta mugikorreko datuen aukera berriak jarri ditu, smartphoneetan, tabletetan, eta beste gailu mugikor batzuetan Internet edukitzeko behar gero eta handiagoari erantzuteko.

Gainera, urteko berrikuntzarik handienetako bat merkaturatu du 2014an: Family Tarifa. Familiei bideratutako eskaintza honek aukera ematen du modu erraz eta ekonomikoan telefonia mugikorreko irtenbide bat edukitzeko etxeko kide guztientzat, dei mugagabeekin eta Interneteko 1 Gb-ko konexioarekin linea guztietarako.

Bestalde, aurrez ordaintzeko bezeroentzako eskaintza berri bat diseinatu du Euskaltelek, gutxi kontsumitzen duten bezeroek bai ahots-zerbitzua, bai Interneteko zerbitzua izan ditzaten, erraz eta modu onean.

Telebista

2014an Euskaltelek apustu estrategikoa egin du merkatuko ikus-entzunezko telebista aurreratuenaren aukera bezero guztien eskura jartzeko.

2014ko gakoak izan dira zerbitzu berri teknologikoki aurreratuak merkaturatu izana, edukien eskaintza aberastu izana eta Eskaintza Komertziala berritu izana.

Publizitate-kanpaina bat, Euskaltelen webgunean, Euskaltelen telebista sustatzeko.



## Edonon

EDONONekin, gailu ugarirentzako merkatuko eskaintza zabalenetako bat diseinatu du Euskaltelek, kalitateari zein kantitateari dagokionez. Edonon zerbitzuari esker, Euskaltelen telebistako bezero guztiek beren telebista-kanalak ikus ditzakete ordenagailuetan, tabletetan eta smarthphoneetan, edonon daudela ere, eta kostu gehigarririk gabe. Bezeroen mugikortasunari erantzuten dio horrela Edononek, eta aukera ematen du telebistako zerbitzua ahalik eta gehien baliatzeko.

## Bideokluba

Bideoklub zerbitzuarekin, edukien eskaintza aberastu du Euskaltelek, eta uneoro du bezeroen eskura. Orain, Euskaltelen HD deskodetzailea duten bezeroek Euskaltel telebistaren kanal esklusiboenen doako 1.000 eduki-izenburu baino gehiago dituzte eskura. Telesailak, dokumentalak, haurrentzako saioak, kirolak eta abar, bezeroak nahi duenean ikus ditzan urrutiko agintearen botoi bat sakatu hutsarekin.

Doako edukiez gainera, Euskaltelen bideoklubak katalogo zabala eskaintzen du: estreinaldiko zinemako, helduentzako zinemako eta liburutegiko zinemako 500

Interneteko alta berriak lortzeko sustapen-kanpaina Port Aventuraren eskutik.

eduki baino gehiago. Kontratatu ondoren, 48 orduz ikus daitezke, edozein gailutatik, EDONONi esker:

Eskaintza komertzialaren diseinu berria

Aldi berean, Euskaltelek birdiseinatu egin ditu orain arte eskaintzen zituen kanal-paketeak: telebista-aukerak sinplifikatu egin ditu, eta prezio oso lehiakorrak eskaintzen ditu. Hauek dira orain TBko hiru modalitateak: Funtsezkoa+, Hautatua+, eta Premium+. Bideoklub eta Edonon zerbitzuak hartzen dituzte barnean hirurek.

Gainera, aukera gisa, etxean bigarren telebista batean ezartzeko aukera ematen du, telebista nagusiaren baldintza tekniko eta kanal berekin, alde batera utzi gabe beste hauek izateko aukera: haurrentzako edo zinemako kanalen paketeak eta Canal+Liga eta Canal+1.

2014ko ekarpen horiei esker, aurrera egin du Euskaltelen telebista-zerbitzuak, kontsumitzaile digitalak eskatzen dituen erabilera berriei erantzuteko: kanal ugari batera, kartako edo eskaripeko eduki-aukera zabala, mugikortasun osoa eta gailuen arteko bateragarritasuna, eta dena prezio lehiakorrekin gainera.

Family tarifa berriak etxeko guztientzako telefonoa mugikorreko soluzio bat ematen du, erraz eta modu onean.



## Gure sarea

Ahalmen eta kapilaritate handiko sare propioaren zabalkuntzan oinarritzen du Euskaltelek etorkizunerantz aurrera egiten duen telekomunikazio-operadore integralaren bokazioa eta ikuspegia, sare horri esker lortzen baita balio handiko zerbitzu bereizgarriz hornitzea.

Sare hori puntako teknologia duten eta zuntz optikoaren erabilera intentsiboan oinarritzen diren azpiegiturez eta ekipoez osatuta dago. Euskaltelek zuzeneko sarbideko zerbitzua eskaintzen duen udalerri guztietan zabaltzen da, eta herriak haien artean eta zentro nodalekin konektatzen ditu.

Sare hori dute oinarri gure bezeroek eskatutako zerbitzuei erantzuteko erabiltzen ditugun teknologiek: banda zabala, telefonia finkoa, kable bidezko telebista eta telefonia mugikorra. Azken bezeroengana iristeko erabiltzen dituen azpiegitura propioez gain, Euskaltelek hainbat interkonexio ditu estatuko eta nazioarteko beste operadore askorekin; horrela, bezeroak herrikoekin bezala konekta daitezke munduko edozein tokirekin.

2014aren amaieran, Euskaltelek 4.718 km-ko zuntz optikoko sarea zuen (gutxi gorabehera 346.700 km zuntz optiko), eta gutxi gorabehera EAEko 834.509 etxek eta 156.774 enpresa eta dendak jasotzen zituzten azpiegitura horren onurak.



Euskaltelen sareak 346.700 km zuntz optiko ditu Euskadi osoan hedatuta.

Sarea hedatzen jarraituko dugu hurrengo urteetan ere, ikusi baitugu beste sarbide-sare bat izateak lagundu egin duela ordura arte beste aukerarik ez zuten edo behar bezalako zerbitzurik ez zuten eremuetako biztanleen bizitza-kalitatea hobetzen.

Banda zabaleko datu-trafikoari dagokionez, hazkundea esponentziala izan da azken

urteetan. Gero eta bezero gehiagok konektatzen dute telebista Internetera, gero eta deskarga gehiago egiten dituzten ordenagailuan eta gero eta bisita gehiago egiten dituzte ikusizko edukiak dituzten orrialdeetan. Etxeetan gero eta gailu gehiago konektatzen dira. Eskaera handitu denez, sarbideko sareei nahiz tronkalei gero eta ahalmen handiagoa eskatzen zaie. 2014an, Euskaltelek banda zabalaren eskaintza komertzialaren abiadurak eguneratu ditu. Hori dela eta, aldi berean zuntz optikoaren garraio-gaitasuna birdimentsionatu behar izan du, eta sarea bikoiztu behar izan du horrenbestez. Hau da, ekipo eta baliabide teknikoak bikoiztu egin behar izan dira banda zabalaren eskaera-gorakada horri erantzuteko.





Sarearen ahalmena handitu behar horretan zeresan handia du merkatuan Over The Top telebista-zerbitzu berriak agertu izana: EDONON eta eskaripeko bideo-eskaintza.

## Telefonia mugikorreko zerbitzua:

Euskaltelek telefonia mugikorrari (ahotsa eta datuak mugikortasunean) lotutako zerbitzuak eskaintzeko eta bere produktuak garatzeko behar diren sareko elementu guztiak ditu, eta, bezero-kopuruari dagokionez, estatuko operadore mugikor birtual (OMB) handiena da. 2014an, estatu barruan estaldura geografikoa hobetzeko eta 4G teknologia martxan jartzeko, ordura arte telefono mugikorreko zerbitzua irrati bidez atzitzeko aukera ematen zuen irrati-sarearen operadorea (host) aldatu behar izan du Euskaltelek.

Ahalegin handia eskatu du horrek; batez ere, arlo teknikotik begiratuta, bezeroak ez zezan praktikan ezer igarri aldaketa egitean. Ukitutako elementuak prestatzeko lanak (terminal gehienak desblokeatzea eta erabiltzaileen SIM txartel adimendun guztiak birkonfiguratzea) urrutitik egin ziren urtarrilaren hasieran, zerbitzuari kalterik eragin gabe. Ekainaren amaierara arte iraun zuen migrazio-prozesuak; azkenerako, 325.000 SIM txartel birprogramatu ziren. Nazioarteko operadoreekin ditugun roaming akordioak —ibiltaritza— bere horretan mantenduko ditugu; horiei esker, bidaiatzean ere telefono mugikorraren zerbitzua erabil dezakegu.

Bestalde, ekipamendudun operadore mugikor birtual bat (full equiped) denez, Euskaltelek aukera izan du 2014an telefonia finkoko beste operadore batzuen enabler (aktibatzaile) gisa eskaintzeko bere zerbitzuak. Hau da, mugikorrik gabeko telekomunikazio-operadoreak OMB (operadore mugikor birtual) bihurtu dira Euskaltelen sarearen azpiegiturari eta baliabideei esker eta sarearen nukleoko baliabide guztiei esker: kokapenen eta zerbitzuen datu-baseetako kudeatzaileak, mezularitza-zentroak, kommutazio-zentralak, ordainketa kontrolatzeko makinak, etab.

## Wimax sarearen estaldura

2006az geroztik, ahotseko eta banda zabaleko zerbitzuak ematen ditu Euskaltelek EAEko 251 udalerrietan biztanleak sakabanatuta bizi diren eremuetan —batez ere nekazaritza-eremuetan—, WiMAX haririk gabeko teknologia erabiliz, Eusko Jaurlaritzaren lehiaketa publiko batean Itelazpi SAren bidez lortutako kontratu baten bitartez.

Zerbitzu horiek jasotzen dituzten bezeroak

(2014aren amaieran 3.530 bat ziren) bizi diren edo lan egiten duten toki askotan ez zegoen aukerarik banda zabaleko zerbitzuez baliatzeko.

## Satelite bidezko estaldura

Wimax sarean osagarri gisa eta Interneteko sarbidea emateko teknologia hori iristeko zailtasunak dauden lekuetan bizi direnentzat, satelite bidezko banda zabaleko Internet zerbitzua jarri zuen martxan Euskaltelek 2014an. Horretarako, Hispasat datu-transmisioko enpresa liderrarekin lankidetza-hitzarmena bat sinatu du. Irtenbide tekniko honek aukera ematen du landa-eremuetako banda zabaleko zerbitzuen eskaintza zabaltzeko.



## Fidagarritasuna

Euskaltel martxan hasi zenetik, sarearen diseinuari dagokionez, betidanik izan du lehentasun handia zerbitzuaren segurtasunak, oso garrantzitsua baita bezeroentzat komunikazio pertsonalak eta komertzialak kalitateko hornitzaile baten esku uztea.

Hala, Euskaltelen zuntz optikozko sarearen topologiak eraztun-motako diseinua du. Eraztun horiei esker, sareko zati bat eroriz edo moztuz gero, zerbitzua babestuta geldituko da. Bideen erredundantzia fisiko horretaz gain, sareko ekipo eta elementu aktibo asko sare-formako eskemetan bikoiztuta edo interkonektatuta daude; hala, haietako bat matxuratuz edo saturatuz gero, trafikoa beste sare batera edo batzuetara birbideratzen da automatikoki, zerbitzua ez da erortzen, eta bezeroak ez du ezer igartzen.

## Teknologia Berriak

Euskaltelek argi du bere bezeroentzako telekomunikazioen operadore global izateko bokazioa, eta, horretarako, zuntz optikozko bere sare propioa hedatzen du bere nodoetatik bezeroen —eta bezero izan daitezkeenen— etxeetara edo haiek dauden tokietara.

Estrategia hori merkatuko gainerako operadoreen estrategiaren oso bestelakoa da, beste batzuen azpiegitura edo sareetan oinarritzen baitira haiek. Hala ere, azkenaldian, Euskaltelen joera bera ari dira hartzen sare propioa duten beste lehiakide batzuk. Egia da horrek inbertsioa, lana eta denbora eskatzen dituela; baina, eskaintzen diren zerbitzuek bilakaera egokia izateko modu bakarra da; bestalde, beste operadoreek eskaini ezin ditzaketen zerbitzu aurreratuak eskain ditzakegu modu horretara. Horri esker, operadore lider bihurtu da Euskaltel EAEn, bai banda zabalari dagokionez (oso abiadura handiko produktuekin), bai ordainpeko telebistari dagokionez (telebista digitala eta bereizmen handikoa).

2014an, berrikuntza teknologikoko zenbait proiektu jarri dira martxan; esaterako, kroskonektoreak (funtsezko elementuak SDH garraio-sarean) azken belaunaldiko sartzeko/ateratzeko multiplexadoreekin ordezkatu dira, askoz ekipo berriago eta malguagoak baitira. Halaber, proposatu da —eta garapen-bidean jarri— ohiko ahots-kommutazioko zentralak, zaharkituak dagoeneko, IP multimedia sistemako (IMS) soluzio teknologiko aurreratuekin ordezkatzea. Plataforma berri horrek

aukera emango du, batetik, ahots-zirkuituak abiadura handian kommutatzeko eta, bestetik, sare berriak eskaintzeko telefonia finko eta mugikorreko sarean, arkitektura horrek ahots-, datu- eta multimedia-trafikoa onartzen baitu, sarbide-mota edozein izanda ere; hau da, IP helbide bat duen edozein terminalek izango du belaunaldi berriko teknologia hori baliatzeko aukera. Proiektu horretarako, ZTE aukeratu da bazkide teknologiko gisa, munduko telekomunikazio-konpainiarik aurreratuenetako bat.

2014an, gainera, beste zerbitzu bat jarri da martxan, enpresa handiei zein txikiei zuzendua: telefonogune birtuala; hari esker, ohiko telefonogunea desagertu egiten da fisikoki, eta banda zabalera sartzeko routerrera zuzenean konektatutako terminal finko independente batzuek ordezkatzen dute. "EKT Centrex"ek ohiko telefonogune baten funtzio berak ematen ditu, baina ekipo zaharren konfigurazio-arazorik gabe eta mantentze-lanik behar gabe. Gainera, zerbitzu berriari esker, enpresako terminal guztietan —finkoetan zein mugikorretan— integra daitezke telefonoguneetako ohiko zerbitzuak: deiak desbideratzea, transferentziak, eta abar.

Euskaltelek 346.700 km inguruko zuntz optikozko sarea du, eta gutxi gorabehera EAEko 834.509 etxek eta 156.774 enpresa eta dendak jasotzen dituzte azpiegitura horren onurak.

# ENPRESAREN GOBERNUA

## Gure akziodunak

2014ko abenduaren 31n, Euskaltelen kapital soziala 379,6 milioi euro zen, eta jaulkipen-saria, berriz, 79,4 milioi euro.

Konpainiaren funts propioak 600,8 milioi euro ziren.

Hauek ziren Euskaltelen akziodunak 2014ko abenduaren 31n:

| Akzioduna | Akzioak | % |
|---|---|---|
| International Cable B.V. | 3.043.234 | 48,10% |
| Kutxabank, S.A. | 2.710.065 | 42,83% |
| Araba Gertu, S.A. | 447.053 | 7,07% |
| Iberdrola, S.A. | 126.538 | 2,00% |
| **GUZTIRA** | **6.326.890** | **100,00%** |

### *Administrazio-organoak*

Euskaltelen administrazio-organoak dira Akziodunen Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua.

### Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseiluak, bere funtzioetan, Sozietatearen interes soziala du beti helburu; hau da, bere helburu soziala indarrean den legediaren arabera ustiatzea bilatzen duen sozietate anonimo independente bateko akziodunen interes komuna.

Administrazio Kontseiluak, bere funtzioetan, interes soziala bilatzen du, eta helburu bateratu bat duela eta irizpide independenteak gidaturik jokatzen du. Gainera, aintzat hartzen ditu enpresa-jarduera orotan parte hartzen duten bidezko interes publiko zein pribatuak, eta, bereziki, interes-talde guztien artean, Sozietatea dagoen komunitate era lurraldeen eta bertako langileen interesak.

Testuinguru horretan aztertu behar da Sozietatearen balio ekonomikoa etengabe handitu izana eta epe luzerako erronkan asmatu izana, hori nahi baitute akziodun guztiek eta, beraz, horrek izan behar baitu beti Administrazio Kontseiluaren, haren organoen eta barne-batzordeen eta batzordekideen jarduera-irizpidea.

Administrazio Kontseiluaren Araudia da haren funtzionamendurako oinarrizko araua, eta han jasotzen ditu bere jarduera-printzipioak, antolakuntza eta funtzionamenduko oinarrizko arauak eta kideen jokabide-arauak, bere funtzioetan (administrazioa, ikuskapena eta interes soziala ordezkatzea) gardentasun, eraginkortasun, indar eta kontrol handiena izateko.

## Administrazio Kontseiluko kideak

Alberto García Erauzkin jauna
Presidentea

Richard Alden jauna
Lehendakariordea

Alicia Vivanco González andrea
Batzordekidea

Alfonso Basagoiti Zabala jauna
Batzordekidea

Javier Bañón Treviño jauna
Batzordekidea

John Mowinckel jauna
(Mareblu SARLren ordezkaria)
Batzordekidea

Bridget Cosgrave
Batzordekidea

José Ángel Corres Abasolo jauna
Batzordekidea

Francisco Javier Allende Arias jauna
Idazkaria

Javier Ruiz-Cámara Bayo jauna
Idazkariordea

## Administrazio Kontseiluko batzordeak

Administrazio Kontseiluak bi batzorde ditu:

- Ikuskatze eta Kontrol Batzordea.
- Izendapen eta Ordainketen Batzordea.

Bi batzordeok ez dute funtzio exekutiborik; informazio- eta kontsulta-organoak dira, eta, informazioa eta aholkularitza eskaintzeaz gain, proposamenak egiten dituzte, bakoitzak bere eremuan. Estatutu sozialetan eta funtzionamendurako barne-erregelamenduetan aurreikusitakoari jarraitu behar diote (Ikuskatze eta Kontrol Batzordearen erregelamendua eta Izendapen eta Ordainketen Batzordearen erregelamendua).

Batzordeon helburu nagusia da Administrazio Kontseiluari laguntzea, informazioa ematea eta proposamenak egitea estatutu sozialek, Kontseiluaren Erregelamenduak eta bere Erregelamenduek une bakoitzean esleitzen dizkioten gaiei buruz.

### *Ikuskatze eta Kontrol Batzordea*

*Funtzioak*

Hauek dira Ikuskatze eta Kontrol

Batzordearen funtzio nagusiak:

- Urteko kontuak aztertzea ekitaldi ekonomiko bat amaitzen denean; kanpo-ikuskarien iritziaren zirriborroa aztertzea; eta Administrazio Kontseiluari gomendioak aurkeztea, hark gero formula ditzan.

- Akziodunek batzordeari dagozkion gaien inguruan planteatzen dituzten galderei buruzko informazioa ematea Akziodunen Batzar Nagusiari.

- Kanpo-ikuskariak izendatzeko proposamena egitea Administrazio Kontseiluari, gero hark Akziodunen Batzar Nagusiari egin diezaion proposamena.

- Barne-ikuskaritzako eta arriskuen kudeaketako zerbitzuak ikuskatzea.

- Finantza-informazioko prozesuaren eta Sozietatean barne-kontroleko sistemak ezagutzea.

- Kanpo-ikuskariekiko harremana ezartzea.
- Urtero, kanpo-ikuskarien independentziari buruzko iritzia adierazten duen txostena igortzea, eta Batzordearen jarduerak labur azaltzea.

- Merkatuak erregulatzeko edo ikuskatzeko organoei bidali behar zaizkien finantza-informazioak aztertzea.

- Interes-gatazkak eragin ditzaketen transakzioei buruzko informazioa.

*Kideak*

Alicia Vivanco González andrea
Lehendakaria

Richard Alden jauna
Batzordekidea

Bridget Cosgrave andrea
Batzordekidea

John Mowinckel jauna
(Mareblu SARLren ordezkaria)
Batzordekidea

Francisco Javier Allende Arias jauna
Idazkaria

## *Izendapen eta Ordainketen Batzordea*

*Funtzioak*

Izendapen eta Ordainketen Batzordearen aginpideak jarduera-eremu hauek hartzen ditu:

- Administrazio Kontseiluaren eta haren Batzordeen osaera.

- Administrazio Kontseiluaren barne-kargudunak eta goi-zuzendariak izendatzeko prozesua.

- Kontseilariak ebaluatzea eta berriz hautatzea.

- Kontseilariak kargutik baztertzea eta kentzea.

- Ordainsariak.

*Kideak*

Richard Alden jauna
Presidentea

Alfonso Basagoiti Zabala jauna
Batzordekidea

Javier Bañón Treviño jauna
Batzordekidea

José Ángel Corres Abasolo jauna
Batzordekidea

Francisco Javier Allende Arias jauna
Idazkaria

***Kudeaketa Taldea***

Fernando Ojeda
Zuzendari nagusia

Francisco Javier Allende
Idazkari nagusia eta Kontseiluko idazkaria

Eloy López-Para
Lehendakaritzako kidea

Jon Ander de las Fuentes
Sail Ekonomiko-Finantzarioko zuzendaria

Carlos Ávila
Eraldatzeko zuzendaria

Alberto Santamaría
Barne-ikuskapeneko zuzendaria

Aitor Markaida
Negozioko zuzendaria

Manuel Salaverria
Bezero Kudeaketako zuzendaria

Manuel Arco
Antolakuntza, Giza Baliabide eta Kalitate Arloko zuzendaria

## Gure erantzukizuna

Euskaltelen xedea balioa sortzea da:

"Pertsonen komunikazio-behar guztiei erantzutea eta enpresei ahalik eta produktibitate handiena izaten laguntzea, eta, horretarako, komunikatzeko eta informazioa kudeatzeko tresnak eskaintzea. Horrekin, gure komunitatearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatu nahi da."

Etorkizunera begira dugun ikuspegia asmo handikoa da, eta konpromiso handia hartzea eskatzen du:

"EAEn eskaintzen dituen zerbitzuetan enpresa aitzindaria, bezeroen beharretatik hurbil dagoena eta arreta eta zerbitzu ezin hobeak eskaintzen dituena, eta, aldi berean, balio-katean eta beste merkatu geografiko batzuetan hazten eta garatzen jarraitzeko aukerei adi egoten dena."

Balio korporatiboak dira gure nortasun-markak:

"Balio korporatiboak gure nortasun-markak dira; gure lan egiteko modua eta pertsonen arteko harremanak, barruko zein kanpokoenak, ulertzeko dugun modua erakusten dituzte."

Euskaltelek Enpresaren Erantzukizun Sozialeko politika bat du, eta han jasotzen da Euskaltelek EESrekin duen konpromisoa (www.euskaltel.com). EESko politikaz gainera, Euskaltelek politiken eta jokabide-kodeen multzo zabal bat du, ziurtatzeko balioak praktikan jartzen direla eguneroko lanean. Hauek, esaterako:

- Ondo gobernatzeko politika.
- Kudeaketa Sistema Integratuaren Politika (Kalitatea, Ingurumena, Laneko Arriskuen Prebentzioa).
- Langileen Kode Etikoa eta Hornitzaileen Kode Etikoa.
- Hizkuntza Politika.
- Arriskuak Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Politika.
- Informazioaren Segurtasuneko Politika.
- Informazioaren Arriskuak Kudeatzeko Politika.
- Genero Politika .
- Enpresa Defendatzeko Politika.

### Sariak, aintzatespenak eta ziurtagiriak

Euskaltelek, aldian behin, erakunde aintzatetsien ikuskapenak izaten ditu bere jardueraren zenbait alorretan, eta, hala, ziurtagiriak berritu ditu:

- Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria (ISO 9001
- Ingurumen Kudeaketaren Sistemaren Ziurtagiria (ISO 14001)
- EMAS III Sistema Komunitarioko

Erregistroan izena ematea

- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria (OHSAS 18001)
- Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria (ISO 27001)

Ziurtagiri horiek eskuragarri daude gure webgunean (www.euskaltel.com)

Euskaltelek sari eta aintzatespen hauek jaso zituen 2014an:

- Euskaltelek 2014ko ComputerWorld EAEko berrikuntza-saria eskuratu du, IDG Communications España talde editorialaren eskutik. Euskaltelek Informazio Geografikoko Sistema (IGS) martxan jartzeko egin duen ahalegina balioesten du sari horrek. Sariaren sustatzaileen arabera, "Euskalteleko IGSren arduradunek beti jakin izan dute sektore lehiakor eta konplexu horretako behar aldakorrak interpretatzen, eta gai izan dira espazioaren aldagaia bateratzeko negoziorako gakoak diren beste sistema korporatibo batzuekin":

- Unicefen aintzatespena jaso du Euskaltelek, GKE horrekin lankidetzan aritzeagatik 2013ko azaroan Filipinetan gertatutako larrialdi-egoeran. Aintzatespen-ekitaldian, Unicefek eskerrak eman zizkion hondamendia gertatu ondoren jasotako laguntzagatik.

- Bilboko Zazpi Kaleetako Merkatari Elkarteak "Alde Zaharraren Laguna", saria eman dio Eskalteli, "urte hauetan guztietan" merkataritza-elkartearen "lagun izan diren" pertsona eta elkarteen lana aitortzeko lehen aldiz eman den saria.

Unicefen aintzatespena jaso du Euskaltelen 2014an, GKE horri emandako laguntzagatik.

# GURE PERTSONAK

## Gure pertsonak

Merkatuak agintzen dituen beharretara egokitzen laguntzeko, antolakuntza-aldaketa ugari egin ditu konpainiak 2014an; hori dela eta, Itun Teknologikoko bi hitzarmen sinatu ditu Euskaltelek punta-puntako bi enpresarekin, GFI eta ZTE, batetik, informazio-sistemekin loturiko aplikazio eta azpiegiturak garatzeko eta haien mantentze-lanak egiteko eta, bestetik, Sareko Eragiketen zerbitzuez arduratzeko, hurrenez hurren.

Euskaltelek, sorrerako irizpideei jarraituz, langileen egonkortasunaren eta jarraipenaren alde egiten jarraitzen du. Langileen %100ek kontratu finkoa, mugagabea eta lanaldi osokoa dute.

Euskalteleko langileen batezbesteko adina 43 urte da. % 80k unibertsitateko titulazioa du, % 10 langile teknikoak dira, eta gainerako % 10ak, berriz, bestelako titulazioren bat du.

### Lana eta familia uztartzea

Laneko eta familiako bizitza uztartzeko, malgutasuna oinarri hartuta planteatzen du Euskaltelek lan-harremana.

2014 osoan, telelanaren inguruko proiektu pilotuaren jarraitu zen, 2012an martxan jarri zena. Hainbat sailetako 15 langilek hartu zuten parte.

Euskaltelen giza taldea 352 pertsonak osatzen dute, eta, horietatik % 80k unibertsitate-titulua dute.

### Desgaituen integrazioa

Euskaltelek bete egiten du apirilaren 7ko 13/1982 Legeak (LISMI) agintzen duena, eta zuzeneko enplegua sortzen du desgaituentzat. Lege horretan ageri den bestelako neurririk ere aplikatzen du Euskaltelek: diru-laguntza ematen dio Adecco Fundazioari.

Bestalde, AFLORA planarekin jarraitzen dugu, Euskalteleko langileek izan litzaketen desgaitasunak azalarazteko diseinatua. Euskaltelen, pertsonako zenbateko bat bideratzen dugu hilero desgaitasun-egoerak irauten duen bitartean. Horrez gainera, desgaitasunarekin sentsibilizatzeko jarduerak egin ditugu langileen artean.

## Aukera-berdintasuna

Euskalteleko langileen % 50 emakumeak dira, eta, % 50, berriz, gizonezkoak. Euskaltelen lantaldea kudeatzean, giza eskubideak errespetatzen dira, aukera-berdintasuna sustatzen da, eta elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako askatasuna errazten dira. Euskaltel jakitun dago bere kudeaketa-politikak eta -estrategiak balio-katera helarazi behar direla, eta, horretarako, Global Compact-i atxiki zitzaion 2003an.

Barne-komunikazioko jarduera bat egiten du Euskaltelek, helburu eta estrategiak langile guztiekin partekatzeko eta enpresaren kide izatearen harrotasuna sustatzeko. 2014an, Enpresaren proiektu eta lorpen garrantzitsuenei buruzko jakinarazpen bat bidali du Zuzendaritza nagusiak, aldian behin, News-Letter-en bidez.

Enpresari buruzko informazioa jaso eta enpresako talde eta langileei buruzko informazioa trukatzeko beste tresna bat barneko aldizkari digitala da.

Langileak, konpainiaren egoitzako auditorioan, enpresaren egoerari buruzko informazioa jasotzen.

## Enpresa barruko gizarte-ekintza

2014ko ekitaldi osoan, Euskaltelen Enpresaren Erantzukizun Sozialaren esparruko ekimenetan parte hartzera bultzatu eta haietan integratu dira langileak.

Ikuspuntu horri jarraituz, Bizkaiko familia batek "Tapoi solidarioak" jasotzeko antolatutako ekimenean parte hartu dugu. Tapoien truke dirua jasotzen dute, eta diru hori ume baten mugikortasuna hobetzeko gailuak erosteko erabiltzen da.

ALBOAN eta GURUTZE GORRIA GKE-ek abiatutako "EMAN ZURE MUGIKORRA"

http://www.donatumovil.org/) kanpainarekin lankidetzan jarraitzen du Euskaltelek. Erabilitako mugikorrak jasotzen ditu eraikin korporatiboetan eta saltokietan, gero material erabili gisa saldu eta GKE-ek diru hori beren helburuetarako erabil dezaten.

Barne-komunikazioko jarduera berariazko bat egiten du Euskaltelek, helburu eta estrategiak langile guztiekin partekatzeko.

Hainbat eratara lotzen dira barruko ekintza soziala eta Enpresaren Erantzukizun Soziala. Modu horietako bat da EiTBren telemaratoi solidarioarekiko lankidetza. Azken urteetan, umeen minbiziaren ikerketara eta organo eta ehunen transplanteetara bideratu du dirua. Kausa horiei laguntzeko elkartu ziren beste behin ere langileak, Euskaltelen laugarren egutegi solidarioa egiteko. Irudien protagonista izateaz gainera, langile eta senitartekoei salduz lortutako dirua ere helburu mediko horretara bideratu zuten.

Bestalde, 2013an, Familia Plana garatzen jarraitu genuen, Adecco Fundazioarekin elkarlanean. Plan horren helburua da desgaitasun-arazoak dituzten senitartekoak dituzten langileei laguntzea, lan-merkatuan sartzeko programen eta aisialdirako programen bidez.

Gabonetan, Olentzeroren jaia ere egin genuen, hamaikagarren urtez, Euskalteleko langileen seme-alabentzat. Modu horretara, Euskalteleko langileak eta familiak elkartzea lortu genuen.

Bestalde, Elikagaien Bankuari eta Cáritasi ere laguntzen dio Euskaltelek, behar handiena dutenentzako janaria bilduz. Elikagaiak jasotzen dituzten gizarte-erakundeek eskerrak ematen dizkigute gure laguntzagatik. Haiek dioten bezala, "pozgarria da gizarteak une hauetan duen elkartasun-espiritua ikustea".

## Euskararekiko konpromisoa

Euskaltelek euskararekiko konpromisoari eusten jarraitzen du, nortasun-ikur gisa, marka-irudi gisa eta erabiltzaileen eskubide linguistikoen berme gisa (erabiltzaileek balio handia ematen diote Euskaltelen bereizgarri horri). 2013an 10 urte bete ondoren, bere horretan eutsi zaie 2014an Euskaltelen Euskara Planaren ildo eta eremu nagusiei (trebakuntza, irudi korporatiboa, kanpo-harremanak, barne-harremanak eta hizkuntza-politika). Berezitasun nagusia izan da 2014an Euskalteleko langileen artean euskararen erabilera bultzatzeko ekintzen dinamizazioan egin dela ahalegina. Hori da bezeroaren eskubide linguistikoak bermatzen dituen arreta bikaina eskaintzeko ezaugarri nagusietako bat; erreferente gisa kokatzen gaitu, beste operadoreetatik bereizten gaitu, eta gizartearekin dugun konpromisoa betetzen dugu horrela.

# GURE KONPROMISO SOZIALA

Berrikuntza eta talde-lana dira First Lego Leaguen jokoan dauden balioetako batzuk. Euskaltel da nazioarteko ekitaldi horren egoitza.

## Gure konpromiso soziala

2014an, Euskaltelek jarduera ugari egin du Euskal Autonomia Erkidegoan. Enpresa guztietan, oro har, aurrekontuak berrikusi eta doitu egin diren arren, batez ere gizarteari laguntzeko eta marketineko alorretan, enpresa-jarduera merkatuko egoerara egokitzeko asmoz, Euskaltelek euskal administrazio publikoarekin elkarlanean aritzeko helburuari eutsi dio, eta proiektu eta jarduera garrantzitsu ugari lagundu du. Horrekin berresten du publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren helburuak ez duela beti ekonomikoa soilik izan behar, baizik eta sinergia-aukera zabal bat eratu daitekeela; hala nola, enpresa- eta hasiera-proiektu berriak sor daitezke, teknologia berrietan trebatzeko eta horiek hedatzeko programak sor daitezke, enpresetan eta etxeko eremuan sartzeari buruzko azterketak eta hausnarketak egin daitezke, eta bi aldeek hobetzeko aukerak eta eraginkortasuna lortuko dituzten beste jarduera batzuk ere gauzatu daitezke.

Egindako jardueren % 40 enpresen testuinguruan egin dira, % 25 erakundeetan eta enpresetan, eta jardueren % 10, berriz,

Euskaltelek berritu egin du ADEGI, CEBEK eta SEA enpresarien hiru euskal konfederazioekiko urteroko konpromisoa, elkarteetako kide diren enpresen lehiakortasuna hobetzeko telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak emanez gauzatzen dena.

babesletzarekin lotutako jarduerak dira.

Jarduera horiek lurraldean oso errotuta dauden eta eragin handiko jarduerak garatzen dituzten enpresek egiten dituzte, "Marka korporatiboaren coreari" eragin gabe, helburua baita gertuko enpresa bat izaten jarraitzea, konprometitua eta bere merkatu naturaleko —hau da, Euskadiko— garapen teknologikoko protagonista izatea eta garapen horretan parte hartzea.

Horregatik, tokiko eta estatuko erakunde askotan dihardu Euskaltelek: lehendakari gisa batzuetan (IZAITE Iraunkortasunaren Aldeko Euskal Enpresen Elkartean eta INNOBASQUE Berrikuntzaren Euskal Agentzian ); eta Batzordeko kide gisa beste batzuetan (Kontsumobiden, AOC Kable Operadoreen Elkartean, EIKEN Euskadiko Ikus-entzunezko Klusterreean eta GAIA Telekomunikazioen Cluster Elkartean).

Parte-hartzea exekutiboa da, eta erakunde-mota horietan garatzen den parte-hartzea aktibatzen du.

Euskaltelek zer elkartetan parte hartzen duen zehaztuko dugu orain ADEGI, AMETIC, AOC, EUSKALIT FUNDAZIOA, APD, F. ARIZMENDIARRIETA, GAIA, BILBAO METROPOLI 30, INKOLAN, INNOBASQUE, CEBEK, IZAITE, SEA, EIKEN, EUSKAL ENPRESARIEN ELKARTEA, NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN MUNDU ITUNAREN ESPAINIAKO SAREA, EIKEN IKUS-ENTZUNEZKO KLUSTERRA, IHOBE, AED, FVEM.

Euskaltelen parte-hartzea erakundeen jardueretan eta babesle gisa:

## Familia-esparrua

Euskaltelen bezeroen artean, familia asko daude. Hori kontuan hartuta, familiaren inguruko jarduera ugaritan parte hartzen dugu; besteak beste, deskontuak eskainiz familia ugariei eta elkarte-mota horrek gizarteratzen dituen topaketetan parte hartuz; besteak beste, Bizkaian Familia Ekintza eta Hirukide edo Familia Ugarien Elkartea (Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan aritzen da elkarte hau). Bilbon Kirol Eguna antolatzen dugu, eta aukera bikaina izaten da familian kirola egiteari balioa emateko eta desgaitasun-arazoak dituzten kolektiboekiko sentsibilizazioa sustatzeko.

Halaber, Euskaltelek Donostiako eta Bilboko festetan parte hartzen du, familientzako jarduerak antolatuz, eta erakusten du zeinen garrantzitsua den teknologia ekitaldiak garatzeko eta horietan parte hartzeko. Horrez gain, besteak beste, bi

Alberto García Erauzkin Euskalteleko presidentea eta Fernando Ojeda zuzendari nagusia, Prest jardunaldian. Konpainiak urtero antolatzen du jardunaldia, telekomunikazio-munduko ideiak partekatzeko enpresa bezeroekin.

hiriburu horietako su-festak babesten ditu.

Familiek parte hartzen duten beste ekitaldi bat Denon Eskola da, Euskal eskola publikoaren eguna.

## Integrazioa eta berdintasuna

Alor honetan, integrazioa, aniztasunarekiko errespetua eta gizon eta emakumeen berdintasuna sustatu dituzten jarduera eta ekitaldietan parte hartzen segitu dugu 2014an.

Hala, DenBBora sarean parte hartzen du Euskaltelek: denboraren erabilera berrietan sentsibilizatzea du helburu mugimendu honek, eta asmoa da kontziliazioaren, berrikuntza sozialen, emakumeen, baliabideen eta denboraren alorreko jardunbide egokiei buruzko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea. Duela lau urte, lanaldi jarraitua ezarri zuen Euskaltelek enpresan, Eusko Jaurlaritzak lagundutako programa aitzindari bati jarraituz. Ordutik, programa ugaritan parte hartu du konpainiak, aurrez aurre azaltzeko nola lan egin daitekeen ordutegi malguarekin eta nola eragiten dien erabaki horrek pertsonen produktibitateari eta gogobetetzeari. Esate baterako, lankidetza estua dugu ARHOE Ordutegiak Arrazionalizatzeko eta Normaltzeko Batzordeko presidentearekin, eta hainbat aldiz planteatu da han Euskaltelen kasua.

AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartean ere parte hartzen

dugu, epaimahai gisa, eta bertatik bertara ezagutzen ditugu emakume enpresariak buru dituzten enpresa-proiektuak; emakume horiek saritzeko ekitaldietan ere parte hartzen dugu.

Halaber, BAT Basque Team Fundazioarekin elkarlanean aritzen gara, bai eta emakumeen kirola eta desgaitasunen bat duten pertsonen kirola bultzatzea duten erakundeekin ere.

Kirol Eguna ospatzen dugu urtero Bilbon. 2014ko edizioko ekitaldirik nabarmenena 4ko futboleko txapelketa izan zen, zeina desgaitasun intelektuala duten pertsonak gizarteratzeko jokatu baitzen, Athletic Fundazioak eta Euskaltelek antolatuta.

Halaber, aipatzekoak dira langileentzat antolatzen diren sentsibilizazio-jardunaldiak. Ikasturte honetan, "La sexualidad que habitamos es plural, nuestras familias también" izenburuko jardunaldi bat egin zen. Helburua da bizitza pertsonalerako eta profesionalerako balio duen informazioa ematen duten hitzaldiak edo mahai-inguruak eskaintzea langileei. Hausnarketa-giro ireki eta lasaiak sortu eta bultzatu nahi dira, aniztasunaren kontzeptuaz eztabaidatzeko denon artean.

Beste jardunaldi batzuk ere ere egin ziren, hala nola errendimendu handiko kirolarien kontziliazioari buruzkoak, bai eta elikadurari eta ongizateari buruzkoak ere.

## Kirolak

Kirolari dagokionez, futbol-babesle izaten segitu dugu, eta Eibar SD ere sartu dugu babesletza-ekitaldi horietan. Hi helburu lortzen ditugu horrela: futboleko lehen mailako babesle izatea eta hiru probintzietan egotea.

Baina kirol-mailan, jardueran gehiagotan ere lan egiten du Euskaltelek. Besteak beste, Bilboko Emakumezkoen Itsas Milia, Behobia-Donostia lasterketa eta Bilbo-

Euskaltel, WiFi sarearen hornitzaile Bilbon egin den Munduko Jauzi Txapelketan: Red Bull Cliff Diving World Series.

Euskaltelek zenbait ekintza antolatu ditu bezeroei zuzenduta, erakundeak parte hartzen duen gizarte-, kultura- eta kirol-babesletzetan parte har dezaten.

Bilbo lasterketa babesten ditugu.

Baina futbolaz eta haren balio mediatikoaz haratago joaten gara, eta gure gizartean sustraitutako kirol minoritarioei balioa ematen diegu, hala nola surfari, Euskal Herriko Surf Federazioak antolatzen dituen 15 proba eta txapelketa baino gehiagoren babesle baikara. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, mendiko edo pilotako proben balioa ere. Euskalteli lotutako balioak transmititzeko bitartekoak dira horiek guztiak; esfortzua, talde-lana, osasuna, natura eta abar transmititzeko.

## Esperientziak

Babesletzatik abiatuta, esperientzia-aukera handia zabaltzen zaigu, zeinek bezeroekin bat egiteko aukera ematen baitute.

Bide horrek aukera ematen du bezeroekin ikusteko ea asmatu dugun edo ez babestu ditugun ekitaldiekin, eta, gainera, babestutako ekimenak gustuko dituzten bezeroek erlazio estuagoa egiten dute konpainiarekin.

Ekintzarako trebakuntza

Borondatezko lan korporatiboko programa bat jarri dugu martxan 2014an. Aspalditik egiten da, egia esan, baina aldian behin eta ez modu egituratuan. Helburua da Euskalteleko pertsonen talentua eta ezagutza identifikatzea, barne- nahiz

kanpo-trebakuntza antolatzeko.

## Hezkuntza, kultura eta euskara

Ikastolen Elkartearekin dugun hitzarmenari eusten diogu, euskara sustatzearen eta erabiltzearen alde lan egiten segitzeko.

## Gozatueuskaltel.com

Gozatuk jada bete du zeregin bat: enpresaren eta hark gizartearen alde egiten dituen ekintzen topagunea da. Merkatu naturaleko jarduera txiki eta handiak jasotzen ditu webgune horrek. Eremu horretan, kontsumitzaileak Euskaltelen mundua ezagutzea da helburua: kultura, aisialdia, zozketak, harpidedunak, istorio partekatuak, gomendioak, ekitaldietako irudia, ekintza sozialak... Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak mundu ukiezinarekin identifika dadin nahi dugu. Bezeroak edo bezero izan daitezkeenak guk babesten ditugun eta parte hartzen dugun ekitaldietara erakarri nahi ditugu, eta ordezkatuta sentitzea lortu nahi dugu.

## Euskaltel Fundazioa

Euskaltel Fundazioak bizimodu digitalaren garapena bultzatu du gizartean, teknologia berriak hurbilduz eta erabiltzen erakutsiz ikastea zailago egiten zaien pertsona-taldeei (zaharrei, baliabide gutxi dituztenei, desgaituei…) edo ikasten jarraitu nahi duten pertsona-taldeei (gazteei, irakasleei…).

2014an, lan handia egin da Konpainiako alor ugaritan Fundazioaren ikuspegia eta helburuak bideratzeko eta gizartearen sentsibilitate eta eskaera berrietara egokitzeko.

Helburuak berriro formulatzearekin batera, eta gure orientazio berriaren isla gisa, marka berri bat sortu du Euskaltel Fundazioak. Aurtendik aurrera, 'Euskaltel Konekta' da.

Euskaltel Konektak pertsonen, enpresen eta ekimenen arteko konexioa sortzen eta sustatzen laguntzea du helburu, betiere IKTen erabileraren esparruan, eta helburu estrategiko hauek ditu:

a) Gazteek IKTekin duten harremana sustatzea.
b) Euskal gizartean presentzia izatea (pertsonak eta enpresak).
c) Erreferentzia bat izatea EAEko IKTen sektorean.
d) Globaltasun-irudia proiektatzea, EAE barruan nahiz kanpoan.

Era berean, Euskaltel Konektak bere nortasuna izango du, eta Euskaltel markari lagunduko dion tresna bat izango da. Ikuspegi berri hori dela eta, 2015ean

berriro definituko da Euskaltel Fundazioa.

## Euskaltelen estrategiarako bultzada

Ezagutza digitala partekatzeko eta egitura digitalei laguntzeko Euskaltelen estrategia bultzatzeko eta entretenimenduaren eta aisialdiaren alorreko kokapena finkatzeko, Euskaltel Fundazioak zenbait proiektu garatzen jarraitu du 2014an, eta, haiei esker, aisialdiko jarduerak egin dira ekarpen teknologikoa eginez, teknologien alderdirik dibertigarri eta gazteena sustatuz.

Hona hemen 2014an egindako jarduerak:

## Euskal Encounter 22.

2014ko uztailaren 24tik 27ra bitartean, 22. Euskal Encounter egin zen, eta informatikaren eta bideo-jokoen 7.000 zale baino gehiago elkartu zituen.

Euskal Encounter espainiar estatuko party aitzindaria da, eta erreferentzia ezagun bat Europan. Munduko partyrik handienetako bat da gaur egun.

Parte hartzen duten gazteen artean, 15 herrialde baino gehiagotako jendea izaten da, bai eta Espainiako autonomia-erkidego guztietakoa ere. % 45 EAEkoa izaten da, % 50 estatuko gainerako lekuetakoa, eta % 5 beste herrialde batzuetakoa.

Opengunerako, standen, hitzaldien eta tailerren eremurako, hitzarmen estrategiko bat egin genuen Enpresa Digitalarekin, erakunde horren workshopak egiteko, batez ere, euskal enpresentzat. 10.000 lagun izan ziren uneren batean Opengune eremuan. Han, gainera, Euskaltelek eta beste babesle batzuek beren produktu eta zerbitzuak erakutsi zituzten.

## Gipuzkoa Encounter 8

Zortzigarren Gipuzkoa Encounter 2014ko martxoaren 13tik 15era bitartean egin zen. Tolosako Usabal kiroldegian, 400 ordenagailu eta 600 lagun elkartu ziren, eta bideo-jokoen euskal industriaren eta ekitaldira etorri ziren sortzaileen arteko topaketak antolatu ziren. Hala, negozio-aukera berriak eta lanerako bestelako aukerak sortu ziren.

## Gamegune 12

Electronic sport (eSport) edo kirol elektroniko deitzen zaie bideo-jokoetako profesionalak elkarren aurka aritzeko antolatzen diren txapelketei. eSport-en Europa mailako lehiaketa bat da Gamegune. Haren ospea handituz joan da, Euskal Encounterren barruan, 11 urtez, eta Counter Strike 1.6 du joko izarra.

Euskal Encounterren Spin-off gisa,

edizio honek nortasun berezia izan zuen Euskalduna Jauregian, uztaileko lehenengo astean, eta nazioarteko bi lehiaketa egin ziren: League of Legends eta CS:GO Females, zeinak kirol elektroniko profesionalen munduko emakumeen parte-hartzea areagotu baitzuen.

## Araba Encounter

Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen bati esker, Araba Encounter egin zen lehenengo aldiz, abenduan, Gasteizko Iradier Arenan. Arrakasta itzela eduki zuen parte-hartzeari dagokionez, eta Euskal Encounterreko Opengunearen kontzeptua tamaina txikiagoko jai batera eraman zen lehengo aldiz.

## Fun&Serious

Fun & Serious Game Festival-i esker, aurten ere bideojokoen hiriburu izan da Bilbo. 2011n sortu zen, eta helburu nagusia da, batetik, ekoizle, zuzendari, artista eta garatzaileen lana ezagutaraztea eta bultzatzea, hitzaldi- eta jarduera-egitarau oso baten bidez, eta, bestetik, Urteko Aisialdiko Bideojokorik eta Serious Gamerik onenak saritzea amaierako ekitaldian. Ekitaldiaren babesle izan ginen, eta stand bat eduki genuen Fun gunean.

Bizikidetzarako danborrak




Ekitaldi teknologiko nagusia da Euskal Encounter, eta munduko party handienetako eta azkarrenetako bat.

"Bizikidetzarako danborrak" birak EAEn geldialdia egin zezan lortu zuen Euskaltel Fundazioak. Aurkezpen solidarioa egin zen Bilboko Guggenheim Museoko atrioan, jendearen borondatea erakarri eta Euskadiko bizitza sozial, kultural, enpresarial eta instituzionaleko talde eta ordezkariak mobilizatzeko. Anidan-Bloko del Valle Junior's Bandeko kideak, eta, EIOren (Euskal Ikasleen Orkestra) atal batekin batera, ikus-entzuleei erakutsi zieten danbor batzuk soilik erabiliz gizarte bat eraiki eta aurrera eraman daitekeela.

## First Lego league

"Jendeari ikasteko modu berritzaileago bat eskaintzea". Hori izan zen Euskadiko FLLk 2014an botatako erronka. Innobasquek bultzatutako ekimen bat da, eta hainbat erakunderen laguntza du, gainera: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Tecnalia, IK4 Research Alliance eta Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkartea.

Euskaltelek hasieratik erabaki zuen Innobasqueren ekimen berritzaile eta zirraragarri hori laguntzea. Eta horren alde egiteko arrazoiak argiak dira: First Lego Leaguek zientzia-bokazioak sustatzen dituelako, gazteak berrikuntzaren euskal sisteman sartzen dituelako eta lankidetza, berrikuntza, ahalegina, gizarteratzea eta antzeko balioak sustatzen dituelako. Helburu eta balio horiek bere egiten dituzte Euskalteleko pertsonek eta konpainiak berak, bere merkatuarekin harremanetan jartzeko modu gisa. First Lego League-ren bidez, Euskaltelek laguntzen du Euskadi erreferentzia izan dadin zientzian, teknologian eta berrikuntzan.

## Innova 2014

Fundazioak 2014ko Innova Bilbao foroa sustatu zuen (apirilean egin zen), non Interneteko negozio-adituek parte hartu baitzuten. Bi egunez, komunikazioaren etorkizuna eta etorkizuneko komunikazioa ezagutzeko gakoak aztertu zituen foroak; horrez gainera, ikusi zen zer tresna behar dituen Interneteko negozio-ideia batek aurrera egiteko gaurkoa bezalako mundu lehiakor eta aldakor batean. 300 lagunek baino gehiagok entzun zituzten adituen iritziak. Inaugurazioan, zera esan zuen Alberto García Erauzkin Euskalteleko presidenteak: "Berritzea gogo-aldarte bat da. Ezinezko iruditu arren egia bihurtzen diren gauzez beteta dago mundua. Gureak ere (Euskaltelek) ezinezkoa zirudien, baina orain 800.000 etxeri eta ehun mila enpresa baino gehiagori ematen diegu zerbitzua".

"Bizikidetzarako danborrak" bira solidarioak EAEn geldialdia egin zezan lortu zuen Euskaltel Fundazioak.

# GURE INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA

## Gure ingurumen-erantzukizuna

Euskaltelek, bere eragiketa globaletan, kontuan hartzen ditu ingurumena babesteko legeak, eta, hala, Euskaltelek berak zuzenean edo hark azpikontratatutakoek zeharka egiten dituzten jarduerek eragin ditzaketen ingurumen-arrisku identifikatuak kudeatzen ditu.

Ingurumen Kudeaketako Sistema bat du ezarria 1999tik, Europako 1221/2009 Erregelamendua (EMAS III) eta UNE-EN ISO 14001:2004 Araua betetzen dituena. Halaber, 2014-2016 Ingurumen Gidaplan bat definitu du, zeinak, batetik, ingurumenarekiko inpaktua kudeatzeko estrategia eta garatu beharreko programa eta ekintzak ezartzen baititu, eta, bestetik, bat baitator Eusko Jaurlaritzak sustatutako bi programa hauekin: Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa.

Kalitateari, Ingurumenari eta Laneko Segurtasunari buruzko politika bat dauka Euskaltelek. Politika hori dela eta, ingurumenari buruzko foro eta ekitaldietan maiz hartzen du parte Sozietateak, eta gogotik jarduten da bere eta bere hornitzaile eta bezeroen jarduerek sor ditzaketen hondakinak gutxitu, birziklatu eta berrerabiltzen, eta merkaturatzen dituen bilgarri eta ontzien, aparatu elektriko eta elektronikoen, eta pila eta baterien berri ematen du. Aipatzekoa da, halaber, 2010-2014 Euskal Enpresako Ekoeraginkortasun Programan parte hartzen duela Euskaltelek. Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, eta euskal enpresa-ehuna jasangarriago, berritzaileago eta eraginkorrago egitea du helburu, prozesu industrialetan ingurumen-aldagaiak ere kontuan hartuz.

Euskaltelen parte-hartzea Global Innovation Day-n.

Klima-aldaketaren aurkako borrokan konprometitua, bere karbono-aztarna kalkulatzen du Euskaltelek, ISO 14064-1:2006 arauaren jarraibideen arabera, eta Berotegi-efektuko gasen emisioen txosten bat egiten du urtero, 2010etik. Hirugarren baimendu batek egiaztatzen ditu urtero emisiook, eta haiek murrizteko ekintza batzuk ere jasotzen dira txostenean.

| ALDERDIA | | 2012 | 2013 | 2014 | Unitatea |
|---|---|---|---|---|---|
| **ENERGIA-KONTSUMOA** | | | | | |
| Elektrizitate-kontsumoa | Guztira | 27.495,45 | 28.295,87 | 28.856,61 | Mwh |
| | Kontsumo korporatiboa | 1.966,40 | 1.923,31 | 1.848,91 | Mwh |
| | Ekoizpen-kontsumoa | 25.529,05 | 26.372,56 | 27.007,70 | Mwh |
| Gasolioa | Ekipo elektrogenoak | 3,35 | 3,95 | 8,40 | Tona |
| | Enpresako autoak | 57,06 | 56,32 | 46,45 | Tona |
| | Langileentzako autoak | 43,29 | 31,80 | 20,54 | Tona |
| **BALIABIDE-KONTSU-MOA** | | | | | |
| Ura | Kontsumo korporatiboa | 3.125 | 2.510 | 2.727 | m3 |
| | Ekoizpen-kontsumoa | 1.585 | 1.426 | 1.627 | m3 |
| **PAPER-KONTSUMOA** | | | | | |
| Papera | Igorritako fakturak | 64,81 | 35,36 | 30,12 | Tona |
| | Argitaratutako aldizkariak | 26,92 | 12,39 | 0,00 | Tona |
| | Publizitateko mailingak | 133,59 | 93,63 | 107,05 | Tona |
| | Materialak (gutun-azalak, inprimakiak) | 0,49 | 0,41 | 0,24 | Tona |
| | Inprimaketa-ekipoak (bulegoa) | 7,05 | 6,60 | 6,90 | Tona |
| **MATERIAL-KONTSUMOA** | | | | | |
| Kableak | Zuntz optikozko kableak | 17,15 | 11,74 | 9,96 | Tona |
| | Pare-kablea | 59,62 | 18,88 | 22,82 | Tona |
| | Kable ardazkidea | 80,78 | 26,52 | 31,16 | Tona |
| | Kable siamdarra | 15,65 | 7,50 | 6,95 | Tona |
| Ekipoak | Banda zabaleko ekipoak | 42,60 | 29,54 | 39,42 | Tona |
| | TBko ekipamendua | 95,23 | 35,68 | 38,88 | Tona |
| | Telefoniako ekipamendua | 10,29 | 9,85 | 1,45 | Tona |
| **HONDAKINAK** | | | | | |
| Hondakin ez-arriskutsuak | Zelulosa-hondakinak (papera eta kartoia) | 45,58 | 37,85 | 46,23 | Tona |
| | Gailu elektriko eta elektronikoak | 57,01 | 37,87 | 40,72 | Tona |
| | Pila alkalinoak | 0,14 | 0,12 | 0,11 | Tona |
| Hondakin arriskutsuak | Botoi-pilak | 310 | 430 | 325 | gramo |
| | Berun azidozko bateriak | 10,77 | 6,68 | 7,23 | Tona |
| | Fluoreszenteak | 0,48 | 0,61 | 0,39 | Tona |
| **EMISIOAK** | | | | | |
| BEGen zuzenekoak (1. irismena) | CO2 | 190,30 | 189,85 | 172,78 | Tona CO2 baliokide |
| | CH4 | 0,25 | 0,25 | 0,22 | Tona CO2 baliokide |
| | N2O | 2,88 | 2,84 | 2,39 | Tona CO2 baliokide |
| | HFC | 12,31 | 147,89 | 114,03 | Tona CO2 baliokide |
| | PFC | 0,00 | 0,00 | 0,00 | Tona CO2 baliokide |
| | SF6 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | Tona CO2 baliokide |
| BEGen zeharkakoak (2. irismena) | CO2 | 6.626,40 | 4.926,21 | 5.463,52 | Tona CO2 baliokide |
| Airerako beste emisio batzuk | SO2 | 0,31 | 0,31 | 0,28 | Tona |
| | NOX | 2,35 | 2,35 | 2,13 | Tona |
| | Partikula solidoak | 0,24 | 0,23 | 0,21 | Tona |
| Karbono-aztarna | Berotegi Efektuko Gasak (BEG) | 6.832,13 | 5.267,04 | 5.752,94 | Tona CO2 baliokide |

www.euskaltel.com